

EROSKI FUNDAZIOARI HERRITARRAREN SARIA EMAN DIOTE, GIZARTEAREN ALDEKO KONPROMISOAREN AITORTZA GISA

- **18 urte da EROSKI Fundazioak bizimodu osasungarriari eta elkartasunari balioa ematen dioten ekintzak eta jakintzak lantzen dituela**

Madril, 2015eko apirilaren 28a.-[EROSKI Fundazioa](#) saritu egin dute [Herritarren XVI. Sarietan](#), Osasunaren eta Bizi Kalitatearen kategorian. Sari horren bitartez, zera aitortu nahi izan diote EROSKI Fundazioari, kontsumerismoarekin, elikadurarekin, bizi ohitura osasungarriekin, elkartasunarekin eta laguntza sustapenarekin zerikusia duen ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko konpromisoa. Irabazi asmorik gabeko erakunde batek eman dio saria, Herritarren Sarien Elkarteak; horren nahia da balioa ematea 2014. urtean Espainian eta nazioartean herritarrei lagundu eta elkartasuna adierazteko proiektuen aldeko ahalegina eta denbora eman dutenei.

Alejandro Martinez Berriochoa EROSKI Fundazioko zuzendariak jaso zuen saria, Madrilen. "*Sari honek animatu egiten gaitu kontsumo arduratsua, elikadura orekatua eta aisialdi aktiboan oinarritutako bizi ohiturak sustatzeko gure lanean jarraitzera eta jenderik behartsuenekin dugun elkartasun konpromisoa betetzera*", adierazi du Martinez Berriochoak.

Orain dela 18 urtetik hona, EROSKI Fundazioak EROSKI gizartearekin duen konpromisoa ordezkatzeko du, bizimodu osasungarriari eta elkartasunezkoari balioa eta jakintza ematen dioten ekintzen bidez. "*Gure zeregina ez dator EROSKIren kultura korporatibotik, hau da, gizartean inplikatzeko duen bokaziotik bakarrik, kontsumo kooperatiba den aldetik estatutuetan ere adierazita dator*", esan du EROSKI Fundazioko zuzendariak.

EROSKI Fundazioak kontsumitzailea informatzen du [EROSKI CONSUMER](#) aldizkariaren bitartez. Hala, kontsumitzaileari publizitaterik gabeko edukiak, egiazkoak, arinak eta erabilgarriak eskaintzeko konpromisoan dihardu, eta bi argitalpen handi ditu: aldizkaria (revista.consumer.es), hogei urte baino gehiago dituen, eta webgunea (<http://www.consumer.es/>), 1998an eratua. Aldizkariak,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel:946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel:944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

webguneak eta beste zenbait euskarrik (esaterako gidek, guias.consumer.es) kontsumoaren arloko erreferentziazko komunikabidea osatzen dute.

2013an, EROSKI eta EROSKI Fundazioak [EROSKIren Elikadura Eskola](#) eratu zuten, elikadura eta bizi ohitura hobetan interesatuta dauden osasuneko profesionalak, irakasleak, gurasoak, ikasleak eta herritarrak biltzeko. Eskolak kalitatezko informazioa ematen du, ezagutza zientifikoan eta berak landutako ikerketetan oinarritzen baita. Ikerketatik, nabarmentzekoa da '[Espainiako herritarren jateko ohituren eta herritarren nutrizio egoeraren gaineko ikerketa](#)'. Espainian egundaino egin den ikerketarik osoena da, eta helburua da Espainiako herritarren jateko ohiturak eta nutrizio egoera ezagutzea. Ikerketan, 6.800 pertsonako lagin esanguratsua darabilte; autonomia erkidego guztietakoak dira.

Era berean, Eskolak badu [Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programa](#) bat, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako. Programa hori osatzeko, Familiaren Ikasgela bat dago, heziketa osasungarriaren proiektua familietara hedatzeko.

Bestalde, gizarte erakunde askorekin elkarlanean ari da fundazioa, hitzarmen bitartez gizarteko behartsuen aldeko erakunde horien helburuak bultzatzeko eta indartzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel:946 211 214
OSCAR GONZALEZ URIARTE

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

EDURNE IZQUIERDO
ZIORTZA BERISTAIN

Tel:944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es